

ZARAUZKO HONDARTZAN UDALDIAN URETAKO KIROL JARDUERAK EGITEKO ARAUAK (2020)

1.- SARRERA

Azken bi hamarkadetan izugarri hazi da surfa eta bodyboarda egiteko ohitura, batez ere uda garaian. Horren ondorioz, aukera ekonomiko eta turistiko batean bihurtu da kirol modalitate hori. Hori horrela azken urteotan sektore hori arautu egiten du Zarauzko Udalak, helburu ekonomikoak dituzten uretako kirol jardueren Zarauzko hondartzako ur eremuaren erabilera arautegia onartuz.

Honako puntu hauek eduki dira kontuan araudi hori egiteko:

- 1.1 Itsasoa guztiok erabiltzeko ondasun bat da.
- 1.2 Zarauzko hondartzan gero eta eskola eta profesional gehiago ari dira surfeko ikastaroak ematen (aurrerantzean, enpresak).
- 1.3 Udan bainulari eta ur-kiroletako zaletu asko joaten dira Zarauzko hondartzara.
- 1.4 Udalak, kantitatearen alde baino, kalitatearen aldeko apustua egin du. Horrek esan nahi du enpresak sailkatu egin behar direla, ikasleen esku jartzen dituzten bitarteko materialen eta giza baliabideen arabera.
- 1.5 Beharrezkoa da zerbitzu horien erabiltzaileen eta hondartzako gainerako erabiltzaileen segurtasuna bermatzea.
- 1.6 Beharrezkoa da erabiltzaileek eta ikasleek partekatuko duten espazio egokitu erreserbatu eta baimentzea, zerbitzua eskaini ahal izateko.
- 1.7 Beharrezkoa da, baita ere, arau-haustea ikuskatu eta zigortzeko sistema bat jartzea

2.- ENPRESEN KATEGORIAK

Zarauzko Udalak kalitatearen alde egin nahi duela eta, enpresak beren baliabide materialen, giza baliabideen eta horien kalitatearen arabera puntuazio-sistema erabilia sailkatuko dira.

- 2.1 Kategoriak. Lortutako puntuen arabera enpresak kategoria hauetan sailkatuko dira:
 - 1 kategoria: 80 puntu baino gehiago lortzen dituzten enpresak
 - 2 kategoria: 40 eta 79 puntu artean lortzen dituzten enpresak
 - 3 kategoria: 0 eta 39 puntu artean lortzen dituzten enpresa
- 2.2 Aurreko hiru urteetan emandako enpresa-kategoria mantentzeko baldintza berdinak ematen badira, kategoria berretsi egingo zaio enpresari hainbat agiri salbuetsita.
- 2.3 Agirietan edozein aldaketa balego, kategoria aldaketa eragin ez arren, derrigorrezkoa da dokumentu/agiria eguneratuta entregatzea.

3.- ESKAERAK

Zarauzko Udaleko erregistro orokorrean aurkeztuko dira kategoria bakoitzerako eskaerak eta horiekin batera doazen agiriak (HAZ Etxezabala, Kale Nagusia 29).

4.- ENPRESEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

Emate den baimena ezin da besterendu, eta enpresa esleipendunak bakarrik ustiatu dezake; azpikontratatzea debekatuta dago.

Araututako denboraldian zehar Zarauzko Hondartzan enpresek beren jarduera egin ahal izateko, ondorengo baldintza hauek bete beharko dituzte.

4.1 Behin behineko baimena izateko baldintzak eta aurkeztu beharreko agiriak

- 4.1.1 Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, eta Zarauzko Udalarekin diziiplina-prozedurarik ebazteke edo ordaintzeke ez izatea.
- 4.1.2 Udako surf ustiapenerako eskaera orria, datu guztiak beteta eta sinatuta Udalean erregistratuta izatea.
- 4.1.3 Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea Zarautzen, dagokion epigrafean (967.2).
- 4.1.4 Kategoría 1.eko sailkapena lortzeko, Zarauzko Udalak emandako surfarekin zerikusia duen irekitze lizentzia edo "Surf eskola" jarduerarako egiaztatze formala edukitzea lokalak.
- 4.1.5 Asegurua: Erantzukizun Zibileko aseguru-poliza bat sinatuta edukitzea, gutxienez, 600.000 eurokoa. Hartzaile modura, erakunde antolatzailea azalduko da. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioaren artean, ordaindutako polizaren eta ordainagiriaren kopia ere sartuko da.
- 4.1.6 SEPA agiria: bete ("SEPA B2B zuzeneko zordunketaren helbideratze agindua"), erreserben eta isunen karguak egiteko. Eskaerarekin batera aurkeztuko da inprimaki hori.

4.2 Behin betiko baimena izateko baldintzak eta aurkeztu beharreko agiriak

- 4.2.1 Kanona: esleitutako kategoriaren arabera, honako kopuruak ordainduko dituzte, eta eskabidearekin batera egindako ordainketaren frogagiria ekarri beharko dute.

2 kategoría	4.500,00 €
3 kategoría	9.000,00 €

- 4.2.2 Fidantza: kategoriakoek 1.000 euroko fidantza jarri beharko dute. Eskaerarekin batera aurkeztuko da horren frogagiria. Enpresak Zarauzko Udalarekin izan lezaken edozein motatako zorra kitatzeko izango da fidantza hau.
- 4.2.3 Tituluak: Beharrezkoak diren tituluen jabe diren langile eta monitoreek emango dituzte ikastaroak. Tituluen fotokopia konpultsatua edo dagokion agintaritzak titulu horien gainean emandako ziurtagiria ekarri beharko du enpresak. Ikastaroak ematen diren tokian ondo ikusteko moduan jarrita egon beharko dira tituluak.

4.3 Urtea amaitzerako baldintzak eta aurkeztu beharreko agiriak

Laneko betebeharrak: Zarauzko Udalarí surf ustiapena emateko langileen kontratuak aurkeztu eta egiaztatuko dizkio, gehienez ere urtea amaitzerako. Aspektu honek baldintzatuko du hurrengo urteko baimena.

5.- PUNTUATZEKO IRIZPIDEAK

Hiru bloketan sailkatuko da: Instalazioak eta bitarteko materialak, Ikastaroen metodologia eta Giza Baliabideak.

Hauek dira puntuatzeko irizpideak (1 eranskinetako taula):

5.1 Instalazio eta bitarteko materialak:

Zarautzen Surf Eskolaren lizentzia duen lokal jakin bat izatea, edo lokal bat edukitzea eta, bertan, surfeko txikizkako beste jarduera batekin partekatzea jarduera (denda bat da, eta bertan, Surf ikastaroetarako espazio bat dauka aparte). Lizentzia bakarra baloratuko da:

Baldintza ezinbestekoak:

- Bederatzi beteko jarduera jarraia izatea gutxienez.

5.1.1 Instalazioak bi sarbide banatuak edukitzea. Sarbideetako bat gune hezera eta aldageletara sartzeko izango litzateke; gune heze horretan surf-oholak, jantziak, likrak eta ikastaroetan erabilitako gainerako materiala biltegitartzeko gune bat egongo da (horretarako bakterien aurkako substantziak eta desinfektatzaileak erabiliko dira). Beste sarbidea gune lehorrera sartzeko izango da.

5.1.2 Erabilera desberdinetarako gutxienez 12m²-ko gune lehor bat egotea.

5.1.3 Dutxekin aldagela bat gizonezkoentzat eta beste aldagela bat emakumezkoentzat

5.1.4 Dutxak dituzten aldagela mistoak egotea.

5.1.5 Erabiltzaileentzat edozein material gordetzeko armairuak egotea.

5.1.6 Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako komun irisgarria egotea.

5.1.7 Hasierarako oholak eta aurreragorako oholak edukitzea, baita ohol biguinak ere. Gutxienez 5 unitate.

5.1.8 Jantzi hauek edukitzea:

- Negukoak: Neopreno luzeak, eskarpinak, eskularruak, txanoak. Gutxienez 5 unitate.
- Udakoak: Neopreno laburrak, likrak. Gutxienez 5 unitate

5.2 Ikastaroen metodologia:

Ikastaroen eskaintza zein den erakusteko baldintzak argitaratuko dira, bai tarifen kartelean, bai idatzizko publizitatea eginez, edo, baita ere, Web orri, sare sozial eta abarren bitartez. Dokumentu hori ikusteko moduko tokian jarrita egon beharko da, bezero guztien eskura.

5.2.1 Udalditik kanpoko ikastaroak eskaintzea. Dagokion epigrafean gutxienez sei hilabetean zehar alta emanda egon beharko dira.

5.2.2 Aniztasun funtzionala duten pertsonentzako ikastaroak eskaintzea.

5.2.3 Ikastaroak bi hizkuntza ofizialetan eskaintzea (euskaraz eta gaztelaniaz).

5.2.4 Ikastaroak beste hizkuntza batzuetan eskaintzea.

5.3 Giza baliabideak:

5.3.1 Honako baldintzak betetzen dituen monitore-kopurua: Eusko Jaurlaritzaren Kirolaren Euskal Eskolak ematen duen 1 mailako Surf Entrenatzaile tituluaren jabe izatea (Surf modalitatean) eta gutxienez 6 hilabeterako kontratu finkoa izatea (autonomoak barne). Kontratuak egunean gutxienez bi ordukoak izango dira, eta gutxienez 240 ordukoak. Gehienez ere 4 kontratu baloratuko dira.

5.3.2 Honako baldintzak betetzen dituen monitore-kopurua: aurreko titulazioaren baliokidea den titulazioaren jabe izatea (2. eranskina) eta gutxienez 6 hilabeterako kontratatu finkoa izatea (autonomoak barne). Kontratuak egunean gutxienez bi ordukoak izango dira, eta gutxienez 240 ordukoak. Gehienez ere 4 kontratu baloratuko dira.

5.3.3 Honako baldintzak betetzen dituen monitore-kopurua: Eusko Jaurlaritzaren Kirolaren Euskal Eskolak ematen duen 1 mailako Surf Entrenatzaile tituluaren jabe izatea (Surf modalitatean) eta udaldian ekainaren 15tik irailaren 15ra kontratatuta egotea (autonomoak barne). Kontratuak egunean gutxienez bi ordukoak izango dira, eta gutxienez 120 ordukoak. Gehienez ere 4 kontratu baloratuko dira.

5.3.4 Honako baldintzak betetzen dituen monitore-kopurua: aurreko titulazioaren baliokidea den titulazioaren jabe izatea (2. eranskina) eta udaldian ekainaren 16tik irailaren 16ra kontratatuta egotea (autonomoak barne). Kontratuak egunean gutxienez bi ordukoak izango dira, eta gutxienez 120 ordukoak. Gehienez ere 4 kontratu baloratuko dira.

5.3.5 Honako ikasketak dituen monitore-kopurua edo administrari-kopurua: Euskarako EGA titulua, lehen mailako edo bigarren mailako ikasketak (D eredu) euskaraz eta/edo Unibertsitateko ikasketak euskaraz. Gehienez ere 4 titulu baloratuko dira.

5.3.6 Beste hizkuntza batzuk dakizkien monitore-kopurua edo administrari-kopurua: frantsesa, ingelesa, ... First certificate maila edo baliokidea. Gehienez ere 4 titulu baloratuko dira.

5.3.7 Jarduerarekin zerikusia daukaten administrari edo laguntzaileak. Gehienez ere 4 kontratu baloratuko dira

5.3.8 Ur-sorosle titulua duen monitore-kopurua. Gehienez ere 4 kontratu baloratuko dira.

Adierazitako atal guztiak ez dira derrigorrez bete beharrekoak. Baina, 1. eranskinean jasotako puntuazioarekin bat etorrira, azkenean lortutako puntuazioaren arabera sailkatuta geratuko dira enpresak araudi honetan ezarritako 3 kategorietako batean.

6.- EUSKARA

Euskal autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira komunikazio eta dokumentazio orotan. Lehenetsuna euskarari emanez betiere.

6.1 Errotuluak, oharra, prezio zerrenda, txartel, fakturak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz, ele bietan edo euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan egongo dira, euskarari lehenetsuna emanez.

6.2 Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz edo ele bietan izango dira, euskarari lehenetsuna emanez.

7.- UR-KIROLAK ZONAK

Hondartzako zaintza eta sorosle zerbitzuak arduratzen diren pertsonak mugatuko dituzte surf-zonak banderekin. Banderak itsasoaren egoeraren arabera jartzen dira, beraz, lekuz alda ditzakete, egokia iruditzen baldin bazaie. Dena den, azken urteetako esperientzia kontuan hartuta, bost zona jarriko dira, ur-kirolak praktikatzeko:

Ur-kirola eremuak	Kategoria	Gehienezko ikasle kopurua
Munoa	1	24
Eguzki Lore	1	36
Dama	1	36
Eremua/ Borguetto	1	30
Kanala	1, 2 eta 3	54

Sektore bakoitzean orduko gehienezko ikasle kopuru bat jarri da, kontuan hartuta monitore bakoitzeko gehienez 6 pertsona egon daitezkeela. Ikastaroetan parte hartzen dutenak kolore bereko likrarekin identifikatuko dira.

8.- EGOKITUTAKO ESPAZIOETAKO PREZIO PUBLIKOAK (IKASLE/ORDUKO)

1 eta 2 kategorietako eskolek Munoa, Eguzki Lore, Dama eta Eremuako (Desertu Txikia) espazioak erreserbatu ahal dituzte. Eta 3 kategorietakoek, berriz, Borguetto /kanaleko zona bakarrik erreserbatu ahal dute.

Surf-eskolek eta profesionalek ondorengo taulako prezio publikoak ordaindu beharko dituzte euren jarduerak egin ahal izateko:

	Munoa	Eguzki Lore	Dama	Eremua Desertu Txikia	Borguetto/ Kanala
1 kategoria	0,50 €	0,5 €	0,5 €	0,5 €	0.5 €
2 kategoria	-	-	-	-	1 €
3 kategoria	-	-	-	-	4 €

9.- ESPAZIOEN ERRESERBA

Web aplikazio bat dago espazioak kudeatzeko. Udal erregistroan kategoria bakoitzeko frogagiriak aurkeztu eta baldintza guztiak betetzen direla frogatu ondoren, aplikazioan sartzeko aukera emango da.

Aplikazioak aukera emango du zona, ordutegia eta ikasle-kopurua hautatzeko eta erreserba egiteko. Horretarako datu batzuk eskatuko ditu aplikazioak, eta horiek derrigorrez bete beharko dira (ikasle-kopurua, monitorearen izena, likraren kolorea, etab.).

Erreserba baieztatzen denean, horren zenbatekoaren berri emango da.

Kontuan hartuta gutxieneko erabilerearen iraupena ordubeteko delako, 30 minutuko frakzioan luzatu ahalko da erabilera hori. Ordubetearen zenbatekoaren % 50 izango da frakzioaren prezioa.

Erreserba baliogabetzen bada eta baliogabetze hori erreserbatutako eguna baino bi egun lehenago egiten bada, erreserbaren % 50 itzuli egingo da.

Arlo horretan eskumena duten agintaritzek edo Zarauzko Udalak jarduerak antolatzen badituzte eta, ondorioz, horrek erreserbatutako espazioen erabilera nolabait mugatzen bada, erreserben zenbateko osoa itzuliko da, baina enpresak ez du eskubiderik izango beste kalte-ordainik jasotzeko.

Espazioen erreserba "ur espazio" gisa ulertzen da. Alegia, erreserba horrek ez du, inondik ere, eskubidea ematen espazio publikoan, hondartzan edota jarduera gauzatzen den lokalaren aurrean beste inolako okupaziorik egiteko.

10.- IKUSKAPEN SISTEMA

10.1 Zarauzko Udalak berari egokiak iruditzen zaizkion bitartekoak jarriko ditu, arauak betetzen direla eta jarduerak ondo funtzionatzen duela bermatzeko.

10.2 Surf enpresaren izena eramatea ezinbestekoa izango da likran.

11.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

ZARAUZKO HONDARTZAKO ERABILERA-ARAU BIDEA ETA JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAN adierazitakoak izango dira arau-hausteak, eta ordenantza horretan aurreikusitakoaren arabera zigortuko dira (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 105 zk., 2004/06/04koa; eta aldaketa hauek: GAO, 189 zk., 2006/10/04; 25 zk., 2009/02/09koa; eta 95 zk., 2014/05/22koa).